



MAIZ EGITEN DIREN GALDERAK

2019-2020 ikasturtea

1. Noiz eska daiteke beka? Zein da aurkezteko epea?:

- 2019ko irailaren 30etik urriaren 29ra arte.

- Epe horretatik kanpo aurkeztu ahal izango dira 2019ko urriaren 29tik aurrera egiten diren matrikulak, betiere matrikula-eskabidearekin batera eskatzen bada eta matrikula egin eta gehienez ere hilabeteko epean. Nolanahi ere, 2020ko apirilaren 30a arte baino ez dira eskabideak onartuko.

2. Non eskura dezaket eskabide-orria? Bete ondoren, non aurkeztu behar dut?

Eskabide-orria modu telematikoz lortzen da www.euskadi.eus/hezkuntza helbidean edo ikastetxeetan.

2018-2019 ikasturtean beka eskatu bazenuen, datuak aurretik grabatuta dituen eskabide-orria lortuko duzu, eta nahiz eta sinadura elektronikoa ez izan, eskabidea balioztatu eta internetez aurkeztu ahal izango duzu, eskabide-orrian agertzen den egiaztatze-kodea erabiliz.

Dokumentazio gehigarria behar izanez gero, eskaneatuta erantsi ahal duzu eskabide-orrian, edo ikastetxean aurkeztu.

Gainontzeko kasuetan, sinadura elektronikoa izanez gero, eskabidea internetez aurkeztu ahal duzu. Dokumentazioa erantsi ahal duzu eskaneatuta, eskabide-orrian. Sinadura elektronikorik ez baduzu, eskabide-orria modu telematikoz bete, inprimatu eta izenpetu egin behar duzu. Gero, behar diren dokumentuekin, ikastetxean aurkeztu eskabide-orri hori.

3. Ordezkaritzan, Zuzenean zerbitzuan... aurkeztu al dezaket eskaera?

Bai, baina gomendatzen da ikastetxeetan aurkeztea.

4. Ba al da haurtzaindegirako bekarik?

Bai, 0 eta 2 urte arteko ikasleentzat (salbu Haurreskolak Partzuergoko ikasleak), honako laguntzekin:

- Kuota: 0 urteko eta urte 1eko ikasleak, hilean 90 euro (11 hilabetez).
- Irakaskuntza: 2 urteko gela, 200 euro (ikastetxe publikoetan ez).
- Jantokia: 2 urteko gelakoentzat, 4 euro eguneko (gehienez 178 egun).

5. Bi ikasketa desberdin egiteko beka eska al daiteke?

Bai, eska daiteke, baina soilik zenbateko handiena duena ematen da.

6. Autonomia Erkidegotik kanpo erroldatuta egonez gero, beka eska al dezaket? Bai, ikastetxea Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta badago.

7. Zein laguntza jaso ditzaket? Baldintza guztiak betez gero, honakoak jaso ditzakezu:

a) Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Musika eta Dantzako oinarrizko ikasketetako ikasleentzat:

- Eskolako materiala.
- Jangela: soilik Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, DBH eta Hezkuntza Bereziko mailentzat. Gehienez ere 712 euro izango dira; zenbateko hori honela kalkulatu da: jantokiko egun kopurua (178 egun, gehienez ere), bider eguneko prezioa, gehienez ere, 4 eurokoa izanik.
- Irakaskuntza.
- Kuota: Haur Hezkuntzako 0 eta 1 urteko ikasleentzat.
- Joan-etorriak: soilik Hezkuntza Bereziko eta oinarrizko Musikako eta Dantzako ikasleentzat, ikaslearen helbidea beste herri batean badago eta 5 km edo gehiago badira, betiere, joan-etorrietarako diruz lagundutako garraioa erabiltzen ez bada. Kontuan izango da hurbilago beste ikastetxerik dagoen a la ez.

b) Batxilergoa, Lanbide Heziketa Erdi-mailakoa edota Goi-Mailakoa, Musikako eta Dantzako Ikasketa Profesionalak, Arte Plastikoak eta Diseinuko Heziketa Zikloak, Kirol-Irakaskuntzako ikasleentzat:

- Eskatzailearen errentari lotutako zenbateko finkoko osagaia.
- Eskatzaileak ikasturtean duen bizilekuari lotutako zenbateko finkoko osagaia.
- Oinarrizko bekaren osagaia.
- Errendimendu akademikoan izandako bikaintasunari lotutako zenbateko finkoko osagaia.
- Zenbateko aldakorreko osagaia.

c) Oinarrizko Lanbide Heziketa eta Hizkuntzako ikasketak egiten dituzten ikasleentzat.

- Oinarrizko bekaren osagaia.
- Zenbateko aldakorreko osagaia

8. Inprimakiaren zein ataletan adierazi behar dut eskatu nahi dudan beka mota? Ez da leku zehatz batean adierazten, eskaera bakarra baita. Familiaren egoera ekonomikoaren, ikasketa motaren, distantzien eta abarren arabera, laguntza bat edo gehiago emango da.

9. Zein agiri aurkeztu behar ditut?

2018-2019 ikasturteko beka eskatu bazenuen, soilik 2018-2019 ikasturtean emandako datuekiko aldaketarik egon bada, erantsi egin beharko dira aldaketa hauen egiaztagiriak.

2018an elkarbizitza-unitatean lortutako diru-sarrerari dagokienez, soilik hauek aurkeztuko dira:

- Errentaren Aitorpenaren fotokopia, Araban, Bizkaian edo Gipuzkoan aurkeztu ez bada.
- Bizikidetzaren unitatearen diru-sarrerak justifikatzeko egoki irizitako beste edozein dokumentu (Ogasunean daturik ez dutenek).

Gainontzeko eskatzaileek:

- Familia ugaria, guraso bakarreko familiak (banantzeak, alarguntza...), zurztasun, minusbaliotasun, familiaren etxetik kanpo bizi diren anai-arreba unibertsitarioak, eta abarren ziurtagiriak.
- Errentaren Aitorpenaren fotokopia, Araban, Bizkaian edo Gipuzkoan aurkeztu ez bada.
- Bizikidetzaren unitatearen diru-sarrerak justifikatzeko egoki irizitako beste edozein dokumentu(Ogasunean daturik ez dutenek).

10. Zeintzuk dira gaituzte ezin dituzten diru-sarrerak? Zergatik dago diru-sarrera taula bat baino gehiago? Diru-sarrera taula desberdinak eskura daitezkeen diru-laguntza mota desberdinei buruzkoak dira. Gaituzte ezin diren gehienezko diru-sarrerak informazio-orrrian jasota daude eta desberdinak dira familia-unitatearen kide-kopuruaren eta laguntza motaren arabera. Haur hezkuntzako 0 eta 2 urteko ikasleentzat errenta-mugak ezberdinak dira.

11. Diru-sarrerarik ez badut, zer jarriko dut eskaeran? Diru-sarrerak nolabait adierazi behar dira, jasotako laguntzen, lan-kontratuen, 10T-en, bizibideen ordezkagiri bidez (bizitzeko baliabideak egiaztatutako behar dituzte agiri ofizialen bitartez: gizarte zerbitzuak, Caritas, Gurutze Gorria...

12. Nola kalkulatu dira familiaren diru-sarrera garbiak?

a) Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Musika eta Dantza oinarriko ikasketak egiten dituzten ikasleentzat:

ZERGA-OINARRI OROKORRA + AURREZKIAREN ZERGA-OINARRIA – KUOTA LIKIDOA + kargeri lotuta ez dauden diru-sarrerak edo salbuetsita daudenak (dietak, sariak, etab.).

b) Batxilergoa, Oinarriko Lanbide Heziketa, Erdi-mailakoa edota Goi-Mailakoa, Musikako eta Dantza oinarriko Ikasketak, Arte Plastikoak eta Diseinuko Heziketa Zikloak, Kirol-Irakaskuntzak, Lanbide-heziketan sarbide-probak prestatzeko ikastaroak eta Hizkuntzako ikasketak egiten dituzten ikasleentzat:

ZERGA-OINARRI OROKORRA + AURREZKIAREN ZERGA-OINARRIA – KUOTA LIKIDOA

13. Noiz ordaintzen da beka? Nola jakingo dut?

Behin-behineko eta behin betiko ebazpenen jakinarazpenak Eusko Jaurlaritzaren <https://euskadi.eus> webguneko iragarki-aula elektronikoa argitaratuko dira. Aipatutako iragarki-aulan ebazpenak argitaratzen direnean SMS edo posta elektronikoa bitartez abisatuko da.

Ebazpena euskadi.eus webguneko iragarki-aula elektronikoa argitaratzen denetik aurrera, alegazioak aurkezteko epea 15 eguneko izango da, eta gora jotzeko errekursoa aurkezteko, hilabetekoa.

Laguntza dena batera ordainduko da hilabeteko epean, Kudeaketa ekonomikoaren zuzendariak **behin betiko ebazpena ematen duenetik aurrera**.

14. Laguntza esleitzen badidate, zergatik ez dut nik dirurik jasotzen?

Kudeaketa zuzeneko jantokiak dituzten ikastetxe publikoen kasuetan, jangelako laguntza guztiak zuzenean ematen zaizkio ikastetxeari, eta ikastetxeak laguntza horiek jasotzean, familiei itzuliko dizkie, hala badagokie.

Gainontzeko kasuetan, familiek eskabide-orrrian baimendu dute laguntzaren zenbatekoa ikastetxeko kontuan sartzea

15. Jangelako laguntza ematen badidate, zergatik ordaindu behar diot kontzeptu hori ikastetxeari? Jantokiko kostua laguntzaren zenbatekoa baino handiagoa izan daitekeelako. Gehienez ere 712 euro izango dira; zenbateko hori honela kalkulatu da: jantokiko egun kopurua; (178 egun, gehienez ere), bider eguneko prezioa, gehienez ere, 4 eurokoa izanik.

16. Ikaslea egunero jangelara joaten ez bada, jangelako laguntza eska al daiteke? Bai, ikasturtean gutxienez 20 egunez zerbitzu hori erabiliz gero.

17. Familia ugaria? Familia ugariak familiaren etxebizitzan bizi den anai-arreba bakoitzeko, pertsona eskatzailea barne, familiaren errentan aplikatzeko deskontuak dituzte.

**18. Ikaslea ikastetxetik 5 kilometro baino gehiagora bizi da, zergatik ez didate joan-
etorrietarako laguntza eman?**

Honako arrazoiengatik izan daiteke:

- Soilik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondoko, Hezkuntza Bereziko, Musikako eta Dantzako mailentzat delako.
- 2.errenta-muga gainditzeagatik.
- Etxebizitzatik 5 kilometrora baino gertuago antzeko ikastetxeak daudelako.

19. Iazko diru-sarrera berdinekin edo antzekoekin, zergatik ez dut laguntza bera jaso? Muga ekonomikoetako bat gainditzen duzulako, edo bizikidetz-unitateko kideak aldatu egin direlako.

20. Non eskatu behar dira unibertsitate-ikasketentzako beka? Unibertsitatean

Telefonoa: EHU BEKAK ARABA 945 013 000

Telefonoa: EHU BEKAK BIZKAIA 946 012 000

Telefonoa: EHU BEKAK GIPUZKOA 943 018 000

21. Ba al dago atzerrian hizkuntzak ikasteko bekarik? Bai, DBHko 2. ziklotik aurrera. Ikastetxeetan eskatzen dira eta deialdia urriaren bukaeran izan ohi da. Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzari dagozkio.

22. Zergatik da haur hezkuntzako laguntza lehen hezkuntzako baino handiagoa? Lehen Hezkuntzan eta DBHko 1. eta 2. mailan ikastetxe publikoetan curriculuma garatzeko material didaktikoaren eta bitartekoen (liburu solidarioak) programa ezarrita dagoelako.

23. Banandutako familien seme-alabek beka aitaren eta amaren bidez eska al dezakete? Ez, bietako batekin soilik, erroldatuta dagoenarekin.

24. Laguntzak beste mota bateko bekekin bateragarriak al dira? Ez, kontzeptu beragatik ematen badira, Haur Hezkuntzako lehen zikloari dagozkion laguntzak izan ezik.

25. Curriculuma garatzeko material didaktikoaren eta bitartekoen “Liburu solidarioak” programari uko egiten badiot, eskolako materialerako laguntza eska al dezaket? Ez, programa horri uko egiten badiozu, ez duzu eskolako materialari dagokion inolako laguntzarik jasoko.

26. Adin mugarik ba al dago? ez